


Aretxabaleta,  
1992ko abenduak 17

# Aretxagazeta



Ongi etorri,  
dobro dosli

- Afizioak:  
Antonio Zuazua.
- Gabonetako  
egitaraua.
- Pyrenaica  
sariak.



Kirola ikustera doan jendeak, beste ikuskizunak ikustera doazenak bezala, jokabide jakin bat erakusten duen taldea osatzen

**Konpetizioa hasi aurretik, dagoen giroa ikusiz, jakin daiteke arazoak izango diren edo ez.**

## Indarkeria eta futbola

du. Talde horretakoak gertakari jakin baten inguruan batzen dira. Euren arauak eta helburuak dauzkate, nahiz eta ideiei eta pentsamoldeei dago-kienez desberdinak izan. Inork agindu barik elkartu arren, taldeko identifikazio-talara lotutako sentimenduez osatutako taldea da.

Kirol konpetizioek "seguritate balore" bezala jokatzen dute eta bertan gizarteak jokaera ezegokiak onartzen ditu, pertsonaren beldur eta tentonaren errepresioen mekanismo moduan.

Kirol konpetizioetako ikuslea lehiakideek lotzen dute eta bere taldeak irabazten ikusteko leku

konkretu batean batzen dira. Horrek indarkeria erakartzen du eta momentu batean arazo larriak sortizake.

Bi arrazoi nagusi dau-de:

- Aldez aurreko jokae-ra.

- Beste leku batetik etorritako jarraitzaileak, leku ezezagun batean izateak.

Errealitatea baloratze-ko aldez aurretiko jarrera, aurretiko esperientziekin eta komunikabideetan zabal-dutako kontrako korronteekin sortzen da. Bera, konpetizioa hasi aurretik dagoen giroa azertuaz, jakin daiteke arazoak izango diren edo ez.

Kanpoko jarraitzaileak asko izateak arriskua haunditzen du, bai jokatuko den lekuan eta baita kanpoan ere. Horrela adierazten digu egin diren ikerketek, batez ere konpetizio inter-nazionaletan.

Bestalde, jokatzen den hirietan jarraitzaile asko joaten delako edo, jende ugari batzen da. Honek arazoak izateko arriskua haunditzen du, bai berez sortutakoak eta baita indarrez sortarazitakoak ere. Hau, zerbitzuek ezin dutelako ezer egin edo ekitza terrorista batek ohiartzun zabala izan dezakeelako gertatzen da.

**Martin Garai, Udaltzain burua.**

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tinoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-konseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publikitate eta erredakzio arduraduna:** Goretti Ayastuy **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabertia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Gabonetan zer duzu gustokoen? Non ipiniko zenuke herriko zuhaitza?



**Ainhoa Garai**  
(Ikaslea)

Gabonetan gehien gustetan zaidana erregaluak dira. Olentzero eguna dut gogokoen, orduan hartzen ditudalako opariak.


Nik Gabonetako zuhaitza herriko Plazan ipiniko nuke.



**Mila Zabaleta**  
(Etxeko andrea)

Gabonak ez zaizkit bape gustetan. Dena kontu bat dela uste dut. Diru asko gastetan da alperrik eta egiten diren afari eta bazkariak ere gehiegizkoak pentsetan zaizkit.

Nik Plazan jarriko nuke zuhaitza, Durana Kalean jartea ezinezkoa delako.



**Pello Orobengoa**  
(Langilea)

Niretako Gabon Zaharra da egunik onena. Familia osoa orduan elkartzen gara eta askoz alaiagoa da.

Zuhaitza Herriko Plazan jarriko nuke nik, hori da lekurik aproposena niretako.



**Juan Carlos Gómez**  
(Langilea)

Gabonetan familia osoa etxean elkartzea dut gustokoen. Horregatik Gabon eguna da onena niretako nahiko egun familiarra delako edo.

Errespetatu ezkeronik Plazan jarriko nuke gabonetako zuhaitza. Baina horretarako jendeak errespetatu egin beharko luke.

## KARTAK

### Eskerrik asko

Gabonak direla eta, aurtun Kirol - Etxeko igerilekuari bizi pixka bat ematea gura izan dugu. Horretarako abenduaren 23, 28, 29 eta 30 eta urtarrilaren 4, 5, 7, eta 8 egunetan Ur tarteko parkea montatuko dugu. Honako material hauek egongo dira: uretako globoak, pelotak, gurpilak eta abar.

Hau aprobetxatuz, Kirol - Etxeko zuzendaritak eskerrak eman gura dizkie honako etxeei: Garaje Eder eta Garaje Oskar, parke hau montatu ahal izateko euren materiala utzi digute-lako.

**Kirol Etxeko zuzendaritza**

### Guk ere oporrak

Mundu guztiak hartzen dituenek, guk ere Aretxagazetan Gabonetako oporrak hartuko ditugu. Hurrengo alea abenduaren 31n kaleratu beharko litzateke, baina opor hauek direla eta datorren urterarte ez da kaleratuko. Beraz, Aretxagazetaren 21. zenbakia urtarrilaren 14an aterako da.

Ulertuko duzue-lakoan eta hilabete bat itxoingo duzuelakoan gaude. Aukera hau aprobetxatuz, Aretxagazetaren irakurle guzti **Zorionak eta Urte berri on** opa dizkizuegu Elkarte honetako partaide guztion partetik.

**Aretxagazetako partaideak**



## Gabonak gainean ditugu

Badatoz aurtengo Gabonak ere, ia gainean ditugu. Umeek merezitako oporrak hartuko dituzte (baita irakasleek ere) eta Olentzeroren etorreraren zain izango dira. Herriko dendak ere gabonetarako adornoekin txukuntzen dabilta.

Gabonetako oporretan Kultura Batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu, bai ume eta baita helduendako ere, beraz izango dugu zer ikusi eta zer egin.

Umeendako mota guztietako ekintzak daude: abenduaren 19an, zapatua, arratsaldeko

Setan Gazteentzako Antzerkia izango da, "Boda en Nazaret" obra eskainiko digute Arrasateko "García de Lorca" taldeak. Abenduaren 22an martizenean, goizeko 10.30etatik ordu 1ak arte eta arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte: Iturrigorri frontoian Gabonetako parkea izango da. Bertan, ohe elastiko bi, gaztelu puzgarria, motorren pista, motor-dun santxeskien pista, bota puzgarria eta Roller Scooter pista izango dituzue. Abenduaren 23, 28, 29 eta 30an eta urtaririlaren 4, 5, 7 eta 8an,

Kirol Etxeko igerilekuan ur tarteko parkea egongo da. Abenduaren 23an, arratsaldeko 5etan, Txoronpio eta Pantxi pailazoak Zaraia zineman. Abenduaren 24ean, eguenean, Arratsaldeko 7etan Olentzero etorriko da Atxabaltara. Ondo portatu diren guztiendako erregaluak izango ditu. Abenduaren 29 eta 30an umeentzako trena ibiliko da herrian. 31n, arratsaldeko 7etan Bizar Zuri etorriko zaigu herrira eta urtaririlaren 5ean berriz, arratsaldeko 7.30etan hiru erregeak. Azken hauek ere

opariak ekarriko dituzte.

Helduendako ere izango dira hainbat ekintza desberdin: abenduaren 21etik urtaririlaren 5erarte, pelota zelan egin ikasteko ikastaroa izango da. Ikastaro hori eguerdiko 12etatik 1ak arte kultur Etxean emango da. Abenduaren 21etik urtaririlak 5erarte badminton ikastaroa, goizeko 10,15etatik 11,15ak arte izango da. Squash txapelketa eta Ping-Pong txapelketak ere izango dira. Horretaz gain Tenis ikastaroa ere izango da gura duten guztiendako. Abenduaren 26an Pala txapelketaren azken aurrekoa izango da eta 27an finala.

Hori gutxi ez bada, bosgarren eskaparate lehiaketa ere egingo da. Hemen Atxabaltako denda guztiek parte hartu ahal izango dute. Erakusketa egunak abenduaren 14tik urtaririlaren 6ra arte izango dira.

Beraz, ondo pasatu Gabonak eta Zorionak eta Urte Berri on Aretxagazetatik Atxabaltar guztiondako.

**MATIKUA**

**JATETXEA**

**(AZATZA AUZOA)**

Tnoa: 79 17 68

**ARBULO  
URDAITEGIA**

Tnoa: 79 02 24

**AZKEN BAZTER  
KAFE-TEATRO-CLUE**



Herriko plaza



**Kultura sailek  
diruz  
lagundutako  
aldizkeria**



## Futbol partidu mundiala 27an

Datorren abenduaren 27an eguerdiko 12etan, Atxabaltako Ibarra futbol zelaian partidu ikusgarria izango da. Herriko Udalbatzak, U.D.Ako neska taldearen aurka jokatu du.

Ez da apustu huts bat, lagunarteko neurketa horren helburua gure bailaran 6 hilabetez San Biator Harrera Etxean egongo diren bosniarren aldeko diru laguntza lortzea da. Udalbatza osatzen duten lau alderdi politikoen ordezkoriek, egun batez tirabirak eta etzabaidak alde batera utziko dituzte, eta geroz eta indartsuago dagoen U.D.A.ko neska taldearen aurka jokatu du te. Hala ere, azken orduko laguntzak edo errefuertoak izango dituzte.

Lortu gura dutenaren aurrean baikor daude antolatzaileak, jende asko

erakartzea gurako lukete. Horrela Bosniako familien beharretarako dirua bideratzea lortuko litzateke. Sarrerak 400 pezetan ipiniko ditugu salgai eta sarrerarekin urdaiazpiko eder baten zozketan parte hartu ahal izango da. Kalitatezko futbola atsegin ez dutenendako, baina bosniarrei laguntzeko daudenek 250 pezetan erosi ahal izango dituzte " 0 fila " txartelak.

Beraz badakizue, futbol partidu eder hori galduta ez duzuenok 27an daukazue zita. Gainera horrela Eskoriatzan dauden bosniarrei lagundu ahal izango zaie hemen jasotako diruaz. Laguntzeko modu polita izateaz gain, partidu interesgarria ikusi ahal izango dugu, primerakoa.

Domekan denok irabaziko dugu.

## Lan domina Juan Arregiri

Lan domina eman zaio Juan Arregiri, lan sailburua den Luis Martínez Novalek eman zion domina. Domina industria lanetan izan duen merituagatik eman zitzaion Arabako enpresetako sindikatuek eskatuta.

Juan Arregi Atxabaltan jaio zen 1907an. Bere lehenengo enpresa Atxabaltan sortu zuen, 1933an Argi industriak fundatu zituen, Ladrilloseko etxepean. Enpresa horretan plantxak eta estufak egiten ziren. hemendik Zubillagara joan zen eta han Forjen enpresa bat fundatu zuen. Geroago 1951n Gasteizen " Forjas Alavesas " sortu zuen, Gaur egun Juan Arregi Alaveseko lehen-dakaria da. Zorionak Juan.

## Lanpostuak

Atxabaltako Udalak bi lanpostutarako deia zabaldu du. Bata behin-behinekotasunez Euskara Teknikari postua beteteko. Itzultzaile maila kontutan hartuko da.

Bestea, urte baterako Enplegu Teknikari postua beteteko. Horretarako baldintzak: euskara, ingelesa edo eta alemana jakitea, goi mailako ikasketak edo ertainak, merkatal munduan izandako esperientzia baloratuko da.

Interesatuok, "curriculum" 18a baino lehen bidali udaletxera.

• Urtarrilaren 9an gaueko 11etan Kirol Etxean Beinkek eta Gaztetxeak antolatutako jaialdia izango da. Bertan Su Ta Gar eta E.H sukarrak taldeak izango dira. Sarrerak Urbaltz, Arlutz, Goiaran eta Gaztetxean egongo dira salgai.

• Gizabide fundazioak antolatutako literatur lehiaketaren irabazleak abenduaren 3an jakinarazi ziren. Lehiaketa horretako irabazleetako bat Alberto Roldan atxabaltarra izan genuen. Albertok eta bere taldeak B kategoriako 1go saria jaso zuten eta jasotako saria 250.000 pezetakoa izan zen. Zorionak Alberto.

• Datorren 19, 20 eta 24ean Beinkek antolatutako Liburu Azoka izango dugu. Bertan, Sehaskaren egutegiak ere izango dira salgai.



## Gipuzkoako V. akordeoi jaialdia

Abenduaren 5, 6, 7 eta 8an Gipuzkoako V. akordeoi festibala izan zen Arrasaten. Parte hartzaileen artean asko atxalbaltarrak izan ziren.

10 urte arteko kategorian: Usue Zamalloa, Naiara Ramos, Lore Salaberria, Ainara Jorge, Ibon Elordui, Irati Urzelai, Nagore Agirre, Merixell Armentia eta Amaia Idigoras. Horiek Orobengoaren taldekoak dira. Luis Mari Elkorobarrutiaren taldekoak: Lorea Lasagabaster eta Aiora Filarrendi.

12 urterarte ko kategorian: Orobengoaren taldekoak: Amaia Sampedro, Itsaso Bidegain, Garikoitz Iturbe eta Ainhoa Izurrategi. Elkorobarrutiaren taldekoak: Ekaitz Oianguren, honek urrezko domina lortu zuen. Arantzazu Arietalianizbeaskoa, honek ere urrezko domina lortu

zuen., Izaskun Gabilondo eta Ianire Davila.

14 urterarte koetan: Maider Zamalloa.

13 urterarte ko bikoteetan: Naiara Akizu eta Esti Gruceta, hauek urrezko domina jaso zuten. Maider Zamalloa eta Itsaso Bidegain.

Horretaz gain, XIII. akordeoi lehiaketa ere izan zen. Hemen ere atxalbaltarrak izan ziren:

Infantil mailan: Irati Cortes, honek 2. postuan eta 20.000 pezeta eta garaikurra jaso zituen.

11 urterarte koetan: Eneritz Elorza, 4. postuan garaikurra eta diploma bat jaso zituen. Agurtzane Azkargortak 5. postua lortu zuen.

Atxalbaltan soinu-jole onak dauzkagu eta Mondragoeko lehiaketan euren benetako maila erakutsi zuten. Zorionak eta jarraitu horrela.

## Hirigintza sailetik

Deba errekararen biderapen bi onartu dira: horrela Atxalbaltako hirigunea, guztiz bideratuta geratuko da.

Lehenengo proiektua Malkorreko zubitik Kirol-Etxeko pasabiderainokoa da. Proiektu horrek biderazioa eta trazalekuaren zuzenketa eramango du aurrera eta baita oinezkoentzako pasabide eta zubi berri baten eraikuntza ere. Zubi bi eta pasabide bat bota egingo dira.

Bideraketa gehienak ormsgoizko hormekin egingo da. Orain dauden horma batzuk errespetatu egingo dira.

Presupuestua 190.000.000 pezetakoa izango da, bertako finantziario MOPT eta Diputazioak eramango

du. Obren iraupena 10 hilabetekoa izango da.

Orain proiektua konfederazio hidrografikora eroango da; lehenengo Oviedora eta gero Madrilera.


Bigarren proiektua Loramenditik Errekabarberainokoa da. Ezkerreko horma ormsgoizkoa izango da eta eskumakoa ormsgoi armatuaz eta ormsgoizko masaz.

Eskumakaldean koitxeendako bide bat egingo da. Eta ezkerrealdean 3,25 mko oinezkoentzako pasabide bat. Bideratze motak 12m zabalera izango du eta betetzeko ur bideratzeak 3,5 m zabalera eta 30 mtako luzera. Obra hau 9 hilabetetako izango da eta finantziaketa pribatua.



Abenduaren 4ean Eskolaurreko haurrek gaztainera erre jana izan zuten. Oso gustora zeuden denak argazkian ikusten denez. Bestalde, Almeneko ikasleek ere egin zuten aste berean gaztainera jana, han ere gustora jan zuten gaztainera bero-beroa.

Antonio Zuazua aspaldi hasi zen Olentzerori laguntzen, Antonio berak erakusten dio herrirako bidea berri ona dakarren ikazkinari. Bere burdiaren gainean sartzen da Olentzero Atxabantan. Orain Gabonak gainean daudela eta berarekin izan gara eta egiten duen lan horri buruz zerbait gehiago kontatu digu.



## Olentzeroren burdiaren gidaria

• **Noiztik zabilta Olentzeroren burdia gidatzen?**

• 17 edo 18 bat urte izango dira. Orduan Alkarretik joaten nintzen, orain Udalaren bitartez. Ohitura hori Don Luis abadeak ekarri zuen. Lehenago ere egiten zen, baina gero Olentzero asto gainean ekartzeko usarioa etorri zen. Hala ere, berriro hasi zen burdian eroaten eta orduan hasi nintzen hemendik ganauak eroan eta Olentzerorekin urte-

• **Zein da egiten duzun lana?**

• Kalea goitik behera pasatu Olentzerorekin. Orain Plazara igoten dugu, lehenago eskaile-

rak zeudelako plaza parean gelditzen ginen. Horren ostean zaharren egoitzara ere joan izan gara erregaluak eroatera.

Plazara heldu arte ondo ibiltzen naiz, baina gora igoteko nahiko lan izaten dut burdiari bultzadatxo bat egin behar zaio eta. Horretarako laguntza behar izaten dut. nirekin batera faroleroak joaten dira, lau bat.

• **Zu hasi aurretik ez zen ganauarekin ibiltzen?**

• Ez, Lehen lehen bai, baina besteetan beti astoaz, orduan Olentzero asto gainean joaten zen. Astoak gureak edo beste edozein etxetakoak

izaten ziren. Lehen oiloak eta arraultzak ere erooten ziren erregaletako edo.

• **Gustora egiten duzu?**

• Bai. Bertan ez naiz horren gustora ibiltzen, baina gero eginda gero oso gustora geratzen naiz. Ganauak, kotxe eta etxafleruekin ohituta daude eta ez dira beldurtzen, baina kaleko zaratarekin askotan aidatu egiten dira. Gainera oso bizkor etorten dira eta ganauak polikiago joan daitezten geldituz joan behar izaten dut. Behetik gora izango baliatuz mantsuago joago liranteke, goitik behera izateran eta etxerako bidea izateran, azkarrago joa-

ten dira. Nik gustora egiten dut, gainera norbaitek egin behar du, umeak oso pozik eta ilusioaz hartzen dute eta.

• **Lan horretan arraitzailerik bai?**

• Ez dut uste. Gurean behintzat ez dago horretan jarraituko duenik.

• **Ondo moldetan zara?**

• Bai, baina egun batzuk aurretik ganauak ibili egin behar dira. Jendeak usteko du ganauak lotu eta eroatea besterik ez dala, baina aurretik irakatsi egin behar zaie. Ibili bakoak badira gehiago ibili behar dira ohituz joateko. Lehenago ibilitakoek ez daukate problemarik, horreik ikasita daude. Baina horrek ez du lan handirik eskatzen, ardurra apur bat beti izan arren.

• **Beti ondo urten du?**

• Bai, nire akorduan inoiz ez da egon problemarik. Bai Olentzerorekin eta baita San Miguelletan egin zen ezkontzan ere. Ardura beti izaten dut ganauren bati zerbait gerta lekiok eta orduan ezer barik geratzen naiz. Lehen etxe gehienetan zeuden ganauak, baina orain ez daude asko eta eta ardurra beti izaten dut. Baina gustora egiten den lana da eta gainera jendeak pozik hartzen duela ikusten da. Nik ahal duan artean jarraituko dut.

**Abenduaren 7an arratsaldeko 8.30ak aldean heldu ziren bosniarrak Gasteizeko Fonda aireportura. Ora in Eskoriatzan daude. Itzultzaile bat daukate eurekin, Sejla Dizdarevich, eta orain dela 7 bat hilabete etorri zen Euskal Herrira. Sejlak ondo daki gaztelera eta bera izan zengere bitartekoa.**

**Danera 19 daude Eskoriatzan eta denak inguru berekoak dira Sarajebo ingurukoak. Gauza asko kontatu zituzten.**



## "Jende asko geratu da Mazedonian handik urten guran"

**• Zela izan dira hona berteko kontaktuak?**

• Gure herrian serbiarrak sartu baino lehen urteak lortu genuen. Gero Mazedonian egon gara errefuxiatuta 4 hilabetez. Gerra hara ere gerturatzearan honuntz etortea lortu dugu eta handik ihes egitea. Kontaktuak C.E.A.R-ekin izan dira, baina etorteko posibilitatea dutenak gutxi dira eta oraindik jende asko geratu da Mazedonian handik urten guran.

**• Handik urteteen bazenekiten hona etorriko zinetela?**

• Ez, baina ez zitzaizun inporta nora, handik urteak zen gure desioa. Gainera guri Bartzelonara eta Madrilera gontozela esan

zizuten. Urten baino egun bi lehenago esan zizuten Euskal Herrira gontozela. Hona etorriko ginela esan zigutenean ez zitzaizun gaizki iruditu.

**• Zertan ematen duzue denbora?**

• Oraindik deskantzetan gaude. Orain hasiko gara emakumeok sukaldean lan egiten eta gizonok barriz, etxean laguntzen.

Gaztelera ikasten ere hasiko gara, hasieran oinarrizkoa eta gero umeak eskoletan integratuko dira. Helduok ahal duguna ikasiko dugu.

Egunean denbora luzea ematen dugu telebistakotzietan, notizietan, notiziaz. Hemengo notiziak hangoen aldean desberdi-

nak dira, leku batzuetan gauza bat esaten da eta beste batzuetan beste bat. Denok nahiko arduratuta gaude, gure herrira joan gura dugulako, baina egoera oso larria da.

Hemen oso gustora gaude eta eskerrak eman gura dizkiegu Eskoriatza, Atxabalta eta Gatzagako herriei dena oso ondo gertatu dutelako eta eskaini diguten laguntzagatik. Hala ere, hemen gustora egon arren, han utzi dugun familia ezin dugu ahaztu.

**• Oso desberdina da hau?**

• Gu 150.00 lagun dauzkan herri batekoak gara, baina paisajeak oso antzekoak dira, hura ere mendiz inguratuta dago eta.

Eskoriatza herria hango herri baten antzekoa da. Han ibai zabal bat daukagu Drina izenekoa. Ibai hori oso inportantea da bai serbiarrendako eta baita guretak ere muga dagoelako.

Sarajebo ere, Eskoriatza eta hemengo herrien moduan, mendiz inguratuta dago. Serbioak mendietan daude Sarajebo hiriarri erasotzen eta noski Sarajebokoak ezin dira defendatu eurak behean daudelako. Han geratu den jendeak ez dauka armarik eta ezin dute euren herria defendatu.

**• O.N.U ren interbentzioan konfidatzen baduzue?**

• Ez dugu uste sartuko

**"Sarajebo, Eskoriatza moduan, mendiz inguratuta dago eta mendietan serbiarrak daude gure herriari erasotzen".**



direnik, baina gurako genuke. Gure ustetan, mundu osoak uste du gauzak oso aguro dabilzala pasetan, baina bertakook ez dugu horren efikazia haundirik ikusten, jendeak uste baino askoz motelago doaz gauzak.

Jugoslabya ohiko ejerzitoa serbiarren alde jarri da eta arma guztiak eurek dauzkate. Armamentu hori geuk pagatutakoa da, beraz guk erosten lagundutako armekin dabilza gureak hiltzen. Milaka hildako daude eta oraindik gehiago izango dira.

• **Eta zer deritzozue handik urteteko pertsonen kopurua limitatua izateari?**

• Guk ulertzen dugu krisisa dagoela Europan eta ezin dutela gehiago onartu, nahiz eta hori ez izan estatu guztien kasua. Lehen guk uste genuen EEBB-k eta O.N.U-k ez zutela utziko gerrak aurrera egin zezan, gu oso bakezaleak garelako. Ez genuen armarik eta ezin dugu geure herria defendatu eta ondorioz ihes egin behar izan dugu bizirik jarraitzeko.

Gure ustetan munduak herri bosniarra desagertzen utziko du eta banandu egingo gaituzte eta gure herria galdu egingo da.

Oso ondo iruditzen zaigu errefuxiatuak onartzea eta gu oso pozik gaude, baina bestalde serbiarrek gure herria hiltzen dabilzala ikusten dugu.

• **Zelan ikusten du-**



Melita, Satko, Munira, Nada, Mirsada.

**zue zeuen bizitza datozen hilabeteetan?**

• Gu oso eskertuta gaude herri hauekin, bizitza normala eskaini digutelako, han ez geneukan bizitza normalik. Hala ere, etorkizuna nahiko ilun ikusten dugu, han denok geneukan geure lana. Ez dugu laster bueltatutzeko esperantzarik. Hemen oso gustora egon arren ez dugu lanik egiten eta ezin dugu familiarekin lehen bezela arduratu.

Alde batetik pozik gaude etxe bat daukagularako, baina bestalde inutil sentitzen gara ezer egin barik gaudelako eta denetik ematen digutelako. Dena daukagu, baina zer-baitan faltan gaude.

• **Aurrera begirau-meez zer egingo dute?**

• Orain jolasean ibiltzen dira hemen daukaten jostailuekin, baina lehen eskolara joaten ziren eta orain

hemen arazoa hizkuntza da. Uste dugu laster ikasiko dutela gaztelera eta gero eskolatan integratuko dira euren hezkuntzarekin jarraitzeko.

• **Denok zarete musulmanak?**

• Bai, baina ez dugu praktikatzen. Gu tradizioz gara musulmanak, baina han oso gutxi praktikatzen dute eta meziketara joan. Gu askoz europarragoak gara.

• **Ospatzen duzue Urte Berria? Aurten ospatuko duzue?**

• Bai, guk ere egun horretan gauerdia itxoiten diogu eta gero ospatu. Gabon eguna ez dugu ospatzen, hori katolikoak diren croaciarek ospatzen dute.

Aurten ez dakigu ospatuko dugun, beharbada bai, baina ez da izango beste batzuetan modukoa eta ez diogu horrenbesteko inportantzia ematen.

**" Hemengo herriei eskerrak ematen dizkiegu, baina inutil sentitzen gara ezin dugu lanik egin".**



**Eldin, Atxabaltako igerilekuan.**

**Eskoriatzan 5 familia eta emakume bat daude. Bakoitzak ze lan mota egiten duen kontatu digute eta baita ze gustetan zaizen ere, euren afizioak.**

**Uzeir** aita da, konsejeroa, eta bere emaztea **Munira** kontablea da. Uzeiri kazen joatea eta bilarrean jokatzeko gustetan zaio eta emazteari puntua egitea. 2 alaba dituzte: **Samira** eta **Selma**. Samirak 23 urte ditu eta poesia idazten ditu. Selmak 16 urte ditu,

igeri egitea eta eskubaloian jokatzeko gustetan zaio.

Beste familia bat: Aita **Satko** eta ama **Nada**. Satko altzari denda bateko komertziala zen eta bere emaztea denda bereko kontablea. Biei igeri egitea eta mendira joatea gustetan zaie. Seme bi dituzte: **Feda** eta **Damir**. Biei futbola eta saskibaloia gustetan zaizkie, bata 9 eta besteak 14 urte ditu.

Hurrengo familia:



**Faruk, Feda, Damir eta Eldin.**

Aita **Nedzad** eta ama **Mirsada**. Aita futbol taldeetako entrenatzailea zen eta ama komertziala. 2 seme-alaba dituzte: **Eldin** 10 urtekoa eta **Zlata** 11 urtekoa. Mutikoari futbola gustetan zaio aitari moduan eta neskari barrirakurtzea eta hizkuntzak ikastea, beraz laster ikasiko du gaztelera eta beharbada euskara ere bai.

Hurrengo familia: Ama **Nadza** da eta semea **Faruk**. Ama ki-

mikako teknikoa da, baina artritaren dela eta orain pensionista da. Semeak 10 urte ditu eta futbola gustetan zaio honi ere.

Azken familia: ama **Adila** jostuna da. 3 alaba ditu: **Aida**, **Emina** eta **Ednina**; 22, 12 eta 17 urte dituzte. Aidari irakurtzea gustetan zaio, eta Edninari boleibola eta baita irakurtzea ere.

Azkenik **Melita** dago. Arkitektoa da eta igeri egitea eta jostea du gustokoen.



**Emina eta Zlata**



**Uzeir.**



## Pyrenaica sariak

Joan zen eguako-txean, abenduaren 11n "Pyrenaica" sariak banatu ziren Atxabaltan. Arratsaldeko 7.30etan hasi zen sari banaketa. Zaraia zinema jendez toperaino zegoen.

Lehiaketara aurkeztutako diapositibekin eman zitzaion hasiera. Gero diapositiben lehiaketan sari-tutakoek sariak jasotzera igo zuten: 3. saria, 10.000 pezeta eta garaikurra, "Contrastes de Navarra" lanaz, Daniel Yaniz bilbotarrak jaso zuen. 2. saria, 15.000 pezeta eta garaikurra, "Ura" izeneko lanaz, Xabier Iriarte hernaniarrak jaso zuen. 1go saria, 25.000 pezeta eta garaikurra, "El Bollo en Sierra Salbada" lanaz, Jose Maria Muñoz amurriotarrak jaso zuen.

Bigarrena XI. mendeari buruzko artikuluen sari banaketa izan zen. Lehe-

nengoekarazko eta gero erdarazkoa. Euskarazkoan: akzesita, 10.000 pezeta eta garaikurra, "Aralarko itsasoaren bila lareo" izeneko, Jexus Aizpurua ataundarrak jaso zuen. 2. saria, 15.000 pezeta eta garaikurra, "Anie edo Ahuñamendiren deia" izenburuaz, Juan Maria Ansa lasartearrak jaso zuen. 1go saria, 25.000 pezeta eta garaikurra, "Atako haranean miatuz" izenburuarekin, Arantxa Urbieta alegiarrak jaso zuen.

Erdarazkoan: akzesita, 10.000 pezeta eta garaikurra, "Explorando Iz-kiz" izenburuaz, Carlos Gorria tolosarrak jaso zuen. 2. saria, 15.000 pezeta eta garaikurra, "La Sierra de Leyre" lanaz, José Antonio Zugasti iruñearrak jaso zuen. 1go saria, 25.000 pezeta eta garaikurra, "Ojo por ojo, monte por monte,

un insólito paseo por He-goalde" izeneko, Josu Mirena Granja bilbotarrak jaso zuen.

Murrukixo Elkarteari ere eman zitzaion garaikurra, urtean zehar egin duten lanagatik eta Alberto, Felix eta Jose Ramonek munduko gailurrera heltzeko eman zieten laguntzagatik.

Arregi medikuari ere garaikurra eman zitzaion, eskeintzen duen laguntzagatik. Eta azkenik, urtero Pyrenaica aldizkariaren kolaboratzen dutenei ematen zaizkien sariak banatu ziren. Oraingoan Mari Abrego eta Javier Sánchezi eman zitzairen.

Bukatzeko Felix, Alberto eta Jose Ramonen Everesteko diapositibak ikusi aukera izan zen. Diapositiba emanaldi ederra izan zen. Felixek azaldu zituen, Albetok ezin izan zuela etorri eta barkamena eskatuta gero. Jose Ramon barriz ikusleen artean gorde zen.

Pyrenaica sarien banaketak arrakasta handia izan zuen, Zarai zinema guztiz beteta zegoen. Inguruko aparkaleku guztiak ere kotxez beteta zeuden, kanpotik ere jende asko etorri zelako.

Ekitaldia bukatuta gero afaria izan zuten. Lehengo eguneko ez da samur ahaztuko Atxabaltan. Jakina, aurten atxabaltar eta eskoriatzarrak lortutako garaipena ere ez da gutxiagorako izan.

Abenduaren 26an kadete eta gazte mailako ziklokrosaz ingo dugu. Aurten ez da profesional eta afizionatu mailakorik izango. Beraz ziklokrosa gustoko duzuenok baduzue zerbait ikusteko aukera.

U.D.A. preferenteak oraingoan, Hondarribi taldearen aurka irabazi zuen. Garaipen honekin eta joan zen astean lotakoarekin, garaipenaren bide-ra heldu direla ematen du. Orainarte partidu bat bakarrik irabazia zuten, baina azken bi partiduak ikusi ondoren, taldea poliki-poliki goruntz doala esan daiteke.

Pala txapelketan, oingo aztean jokatu da azken ihardunaldia. Gabonetan, finalerdiak eta finala jokatzeko bakarrik gelditzean da.




*Aurten Nazio arteko Ziklo-Kros Kriteriuna ez dagoela eta, hemen daukazue 1955eko otsailaren 6an egindako ziklo-kros froga. Afionatu mailako irabazlea Jesús Fernández De Arroyabe "Matxain" izan zen.*

## ERRETRATOAREKIN JOLAŞEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
  - Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.
- Hona hemen aste honetako galdera:  
**Erretratoan Keops eta Kefren piramideak ageri dira. Zein da hirugarrena?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Plaentzia)



**Aurreko lehiaketaren irabazlea MARIA GALLASTEGI izan da. Zorionak!**

Erantzuna: .....

- Izen-abizenak: .....
- Helbidea: .....
- Tfnoa: .....

# Trenaren faltan, kirola



J.J. Aretxaga

Erreala eta UDA haundi txarto dabilta. Gainera UDA eta Mondra ez daude aurten kategoria berean. Zer egingo dute herriko futbolmanoek? Beste ekipoetan ilusioa jarri. Horrela esplikatzan da jendeak Udako eta Mondrako nesken partidua ikustea, nahiz eta zaparrada bota. Zapatuan jokatu zen partidua Anxon. Kapitalekoek irabazi, 0 eta 1. Kurioso, gola nork sartuko eta Mondran dabilen atxabaltar batek, **Saioa Etxebarriak**. Atxabaltan dabilen arrasatear bat barriz, **Libe Ola-barrieta**, lesionatu egin zuten. Edozein modutan ere, laster dator partidua interesgarriago bat: UDako neskak Udaleko zinegotzien eta abarren kontra. Udal plenoan erabaki zuten **Jokin Bengoa** barrero entrenetan hastea eta **Aitor Antxia** errejimenean jartea. Dena beharko da.

Futbolarekin jarraituz, badago urrintxoago joan den atxabaltar bat, **Igor Arenaza**. Lehengunean Bilbao Athletic taldearekin debutatu zuen 2-A kategorian. Sestaoren kontrako partiduan 21 minutu jokatu zituen. Hasibari bat ai-

tatuta gero, erretiratu bat aitzazera goaz. **Marino Lejarreta** jauna Aretxabaletara dator aste honetan. Peña Marinoko jendeak antolatuta bazkaria izango dute 20an Matikun.

Pyrenaica sariak Aretxabaletan banatzea ez da urtero pasetan den gauza. Mendizale munduko izen ugari izan zen Zariaia zinean, baina Udaleko ordezkarien hutsunea nabaritu zen. Norbaitek komentatu zuen erdera larregitxo entzun zela Zariaiako ekitaldi hartan. Paraloskenoentziden.

Oraindik oso ondo ulertu ez duguna da zergatik kendu zuten hemengo tren. Ez dauka erremediorik, baina gogoratzea ez dago txarto. Hil honen bukaeran 25 urte beteko dira bailarako trenak kendu zutela. **Paul Zuazabetiak** atara zituen azken bidaiaren erretratuak, Express tabernan jarrita daudenak. Berari esker jakingo dute gazteek zer zen hemengo tren eta ez hain gazteok oroitzapena gordeko dugu. Portzierto, trenbidea izandako lekuan, Eskoriatzara bidean, farolak jarri dituzte. Etxekoandre paseatzailleentzako mesede. Parejatoentzat, auskalo.

Eskoriatzarrak 79-aren klubetik urten egin dute. Hemendik aurrera Eskoriatzara telefonoz deitu behar baduzu, ez markatu lehengo zenbakiak. 79-ren partez 71-ekin hasiko dira herri horretako telefono zenbakiak. Futbolarekin hasi eta zenbakiekin bukatu. Hau kronika arraroa.

KOMIKIA



**18**  
**EGUAKOTXA**

• Gaueko 10.30etan  
Zaraia zineman jazz kon-  
zertua, Zubipeko Swing  
taldearekin.

**19**  
**ZAPATUA**

• Gabeko 10etan,  
Zaraia zineman: "Los  
Reyes Del Mambo " fil-  
mea.

**20**  
**DOMEKA**

• Murrukixo Mendi  
Elkartearen urteera:  
**GAZTELU.**

• Arratsaldeko  
4.30etan eta 7etan "

**Que Desparame "** fil-  
mea, Zaraia zineman.  
• Futbol partidua:  
**U.D.A - ORDIZIA K.E**

**22**  
**MARTIZENA**

• Goizeko 10.30eta-  
tik 1etara eta arratsalde-  
ko 4.30etatik 8ak arte,  
Iturrigorri frontoian: **P.I.N**

**23**  
**EGUAZTENA**

• **TXORONPIO** eta  
**PANTXI pailazoak** Za-  
raia zineman, arratsalde-  
ko 5etan.

**24**  
**EGUENA**

• **OLENTZERO.**

**25**  
**EGUAKOTXA**

• Gabeko 10.30etan  
Zaraia zineman: " **Ana-  
lisis Final** " filmea.

• Murrukixo Mendi  
Elkartek: Kurtzebarrin  
turroia eta txanpana.

**26**  
**ZAPATUA**

• Gabeko 10.30etan  
Zaraia zineman: " **El Pa-  
dre De La Novia** " fil-  
mea.

**27**  
**DOMEKA**

• Zaraia Mendi Tal-  
deak: Turroi eguna.

• Zaraia Mendi Tal-  
deak, eskolarteko kirola,

urteera: **Orkatzategi.**

**29**  
**MARTIZENA**

• **Herriko Trena.**

**30**  
**EGUAZTENA**

• **Herriko Trena.**

**31**  
**EGUENA**

• Murrukixo Mendi  
Elkartearen urteera: **Ai-  
tzgorri.**

• **Bizar - Zuri.**

**5**  
**MARTIZENA**

• **Erregeak**

ARETXAZOKA

**Etxebizitzak**

• Pisu bat alokatzeko  
dago. Interesatuok tele-  
fono honetara deitu: 79  
40 19

• Pisu bat alokatzen  
da San Milguel auzoan.  
Interesatuok Herriko  
Plaza 10era, jantzi den-  
dara jo edo telefono ho-  
netara deitu lan ordutan:  
79 59 78.

**Lana**

• Alemaña hutsetik  
hasita ikasi gura nuke.  
Norbaiterakusteko prest  
balego, dei dezala  
ilunkaretan zenbaki ho-  
netara: 79 41 94.

• OHoko klase par-  
tikularrak ematen dira.  
Tfnoa: 79 68 18.

**Denetarik**

• Txakur bat galdu  
da. Mutur izenera eran-  
tzuten du. Uletsua eta  
rubioa da. Bilatzen due-  
nak, deitu dezala, 79 57  
97 telefonora.

• Azaroak 27an  
urrezko pultzera bat bi-  
latu zuten eliza aurrean.  
Pultzeraren jabea etorri  
dadila Aretxagazetak  
Kultur Etxean daukan  
bulegora.

**Orrialde  
honetako  
iragarkiak ( lana,  
etxebizitza,  
salerosketak eta  
abar) debalde  
dira. Testua  
idatzi eta bidali  
gure bulegoetara  
edo 151  
postakutxatilara.**

**SEAT**  
  
**GARAGE**  
**OSKAR**  
 Basabe poligonoa  
 A - 2 - 4  
 Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**  
 GOIZEKO 5,30etatik  
 ZURE ZERBITZUAN  
 MANTEKA  
 ANAIK

**BASABE**  
**JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
 Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE**  
 " EDER "

---

**Karrozeria**  
**mekanikoa**

---

IBARRA S/N  
 Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA**

**M**obiliario  
**A**RENAZA  
 ALTZARIAK  
 DISEINUA  
 APAINKETA  
 BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

 **EROSKI**  
 Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
 DURANA ETA ARALAR KALEETAN  
 Tfno: 79 16 05

**MZ MASAILARIAK**  
**MASAIK ZARAIA**  
 MASAIK eta  
 OSTEOPATIA  
 Loramendi, 13 - 1. A  
 Tnoa: 79 71 55

**GATZAGAN**  
 Ireki berria!!!  
**ZUHAITZ jatetxea**  
  
 Tfnoa: 79 79 39

**I O S U**  
 URDAITEGIA  
 MITARTE, 1 eta  
 GORBEA, 8

**BENGOA**  
**FERRETERIA**  
 ( Menajea eta  
 etxerako dana )  
 Herriko Plazan  
 Tnoa: 79 29 12

  
 Bere Bezeroen zerbitzura  
 Mitarte, 16  
 Tnoa: 79 61 42

Autoservicio  
**ANGELINES**  
  
 Mitarte, 16  
 Tnoa: 79 61 42


**NERIAN**  
 Loradenda  
 Otalora, 14 behea  
 Tfnoa 79 70 66

**MITARTE**  
**GARAI**  
 ( JATETXEA )  
 Arientzan  
 Tlfnoa: 79 17 51

**AROTEGI**  
**GENERALA**  
  
**PORTASOL**  
 ARETXABALETA  
 Tnoa: 79 34 84

 **LENIZ**  
 LIBURUDENDA  
**HERRIKO**  
**PLAZA**  
 TFNOA:  
 791616

**SAGASTA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
 Elektrogailuak  
 Elektra-instalakuntzak  
 Otalora, 14  
 Tfnoa: 79 16 10




Gaurtik aurrera, aurrezki-zerga gutxiago ordaintzea eta errentagarritasun altua eskuratzea, den-denon esku-  
ra dago. Euskadiko Kutxaren Fiskal Aurrezki-Planarekin.



Lagun guztiek bere aurrezkiengatik etekin handiena eskura dezaten bereziki dize-  
natua. Erabilgarritasunari uko egin gabe. Zerga gutxiago ordaindiz. Eta uneko erren-  
tagarritasun garbia handienarekin. Inbertsio-fondoa delako -Caja Laboral Renta FIM-  
Baina, libretan, dena argi, seguru eta erraz jarrita ikusteak daukan erosotasunaz. In-  
forma zaitetz gure edozein sukurtsaletan. Euskadiko Kutxa. Oraingoa unerik egokiena.

**Euskadiko  
Kutxa**



CAJA LABORAL POPULAR  
LKN KIDE AURREZKIN